



## PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

<b>IKASTETXEA</b>	CPED KIROLENE KIIP		
<b>GRADOA</b>	ERDI-MAILA	<b>ZIKLOA/MAILA</b>	1
<b>MODULOA</b>	LEHEN SOROSPENAK		

HELBURUAK	EDUKIAK
<p><b>A.</b> Hasierako balorazioa egiten du protokoloetan oinarritutako teknikak erabiliaz eta printzipio anatomiko eta fisiologikoekin erlazionatuz.</p> <p><b>B.</b> Lesio mota desberdinak kontutan izanik, lehen sorospenetako teknika egokia erabiltzen dira.</p> <p><b>C.</b> Oinarrizko bizi euskarria erabiltzen da instrumentazioa identifikatuz eta oinarrizko protokoloetan ematen diren faseak deskribatuz.</p> <p><b>D.</b> Komunikazio teknika egokienak erabiliz eta deskribatuz kaltetuari eta ingurukoei laguntza psikologikoa eta norberaren autokontrolerako teknikak lantzen dira.</p>	<p><b>1. Hasierako balorazioa eta oinarrizko anatomia eta fisiologia.</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>– Larrialdietan ematen diren zantzu eta sintomak.</li><li>– Kozientzia mailaren balorazioa.</li><li>– Bizi zantzuak hartu.</li><li>– Oinarrizko Miaketa protokoloak.</li><li>– Lehen sorospenetako terminologia medikoa.</li><li>– Informazioaren igortzean erabili beharreko protokoloa.</li><li>– Helduen, umeen eta bularreko umeen bizitza arriskuan dagoenean ematen diren zantzuak.</li><li>– Ingurua babesteko metodoak eta materiala.</li><li>– Lehen sorospenekin erlazionatutako oinarrizko anatomofisiologia: Hezurak, giltzadurak eta giharrak ( kontzeptua, ezaugarriak, sailkapena eta kokapena).</li><li>– Lesio traumatikoen eta eragile fisiko, kimiko eta biologikoaen oinarrizko balorazioa.</li><li>– Larrialdietako patologia organikoen oinarrizko balorazioa.</li></ul> <p><b>2. Lehen sorospenetako teknikak.</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>– Lehen sorospenetako botikina.</li><li>– Lehen sorospenen erabilera.</li><li>– Segurtasuna teknikak erabiltzen direnean.</li><li>– Mobilizazio eta immobilizazio prozeduren erabilera.</li></ul>



### **3. Oinarrizko bizi euskarria eta instrumentazioa.**

- Arnas bideen iragazkortasunaren kontrola.
- Oinarrizko bihotz birika bizkortzea.
- Kanpoko desfibriladore semiautomatikoak ( DESA).
- Kaltetuaren oinarrizko azterketa.
- Eragile fisikoek (traumatismoak, beroa eta hotzak, elektrizitateak eta erradiakzioak) eragindako lesioen hasierako arreta.
- Eragile kimiko eta biologikoak eragindako lesioen hasierako arreta.
- Larrialdietako patologia organikoan hasierako arreta.
- Konpetentzia eremuan jokabidea mugatuta egongo da.

### **4. Norberaren autokontrola eta laguntza psikologikoetan erabili beharreko teknikak.**

- Kaltetuen laguntza psikologikoa.
- Lehen sorospen psikologikoak. Gizarteak hondamenen aurrean duen jokabidea.
- Komunikaziorako oinarrizko estrategiak.
- Lehen sorospenetan lehenengo esku hartzen duen pertsonaren balorazioa.
- Pertsonen arteko komunikazioa errazten dituzten teknikak.
- Emergentzia egoeretan antsietatea errazten dituzten eragileak.

### **5.Inguruaren kontrola eta emergentzietako sistemen antolaketarako teknikak.**

- Emergentzietako sistemak.
- Lehen sorospenetako helburuak eta mugak.



## EBAKUAKETA IRIZPIDEAK

### **a) Ezarritako protokolo teknikak erabiliz eta printzipio anatomiko eta fisiologikoekin erlazionatuz hasierako balorazioa egiten du. ( RA)**

a.1. Bizi zantzuak hartu eta identifikatu dira. ( EI)

a.2. Kasu bakoitzean erabili beharreko balorazio protokoloak identifikatu eta deskribatu dira. (EI)

a.3. Hezurretan eta giltzaduretan eman daitezkeen zauriak baita sintomak eta lesioa eragin duten mekanismoak ere identifikatu eta deskribatu dira. (EI)

a.4. Giharretako eta tendoietako zauriak baita sintonak eta lesioa eragin duten mekanismoak ere identifikatu eta deskribatu dira. (EI)

a.5. Traumatismo mota desberdinak identifikatu eta deskribatu dira. ( EI)

a.6. Lehen sorospenetako oinarri anatomofisiologikoak deskribatu dira.( EI)

a.7. Kanpoko eragileek ( hotzak, beroak, eragile kimikoen eta biologikoen) eragindako kalteak, baita sintomak eta lesioa eragin duten mekanismoak ere identifikatu eta deskribatu dira.(EI)

a.8. Lehen sorospenekin erlazionaturiko terminologia medikoa erabili da. ( EI)

a.9. ILCOR protokoloak kontutan izanik jokabideen sekuentzia identifikatu da. ( EI)

### **b) Zauri mota eta kasu bakoitzean erabili beharreko protokoloak kontutan izanik lehen sorospenetako teknikak erabiltzen ditu.**

b.1. Zauri mota desberdinak kontutan izanik lehen sorospenetako teknikak egokia erabili da ( EI)

b.2. Zauri mota kontutan izanik lehen sorospenetako protokoloak eta immobilizazio teknikak identifikatu eta deskribatu dira. ( EI)

b.3. Lehen sorospenetan erabili beharreko materiala identifikatu da ( botikinak eta bestelakoak) ( EI).

b.4. Kaltetua gaizki mobilizatzeko eta lehen sorospenetako teknikak gaizki aplikatzeko izan ditzakeen ondorioak deskribatu dira.(EI)

b.5. Kaltetua leku batetik bestera eramateko immobilizazio teknikak aplikatu dira. ( EI)

### **c) Instrumentazio desberdina identifikatuz eta oinarritzko protokoloen faseak deskribatuz oinarritzko bizi euskarrian erabili beharreko teknikak erabiltzen dira. (RA)**

c.1. Oinarritzko bizi euskarrian erabili beharreko oinarritzko instrumentazioa ezagutza eta erabilera aztertu dira.( EI)

c.2. Oinarritzko bihotz birika bizkortzearen oinarriak deskribatu dira (EI)

c.3. Arnas bideak zabaltzeko teknikak erabili dira. ( EI)

c.4. Bentilazio teknikak erabili dira. (EI)



- c.5. Oinarrizko zirkulazio teknikak aplikatu dira.(EI).
- c.6. Kanpoko desfibriladore semiautomatikoa erabili da. (EI)
- c.7. Post- erreanimazio neurriak erabili dira. (EI)
- c.8. Esku hartzea eta ebakuazioak egin behar ez diren egoeren ezaugarriak identifikatu dira. ( EI)
- c.9. Protokoloak diren bezala aplikatzearen garrantzia baloratu da. ( EI)

**d) Komunikazio estrategia egokiena deskribatuz eta erabiliaz norberaren autokontrolerako eta kaltetuei eta laguntzailei laguntza psikologiko emateko teknikak erabili dira. ( RA)**

- d.1. Oinarrizko laguntza psikologikorako teknikak deskribatu eta aplikatu dira. ( EI)
- d.2. Oinarrizko autokontrol teknikak deskribatu eta aplikatu dira ( EI)
- d.3. Lehen sorospenetan erabili beharreko oinarrizko komunikazio estrategiak aplikatu dira. ( EI)
- d.4. Kaltetuetan eman daitezkeen egoera emozional posibleak deskribatu dira.( EI)
- d.5. Estres egoeren aurrean autokontrolak duen garrantzia baloratu da. ( EI)
- d.6. Instripu edo emergentzia egoera baten aurrean antsietatea eragin dezaketen faktoreak deskribatu dira( EI)
- d.7. Ingurumeneko tentsio egoerak kontrolatzeko teknikak deskribatu eta aplikatu dira ( EI)

**e) Emergentzia sistemaren antolakuntza eta jarritako protokoloekin erlazionatuz ingurumena kontrolatzeko teknikak aplikatu dira. ( RA)**

- e.1. Ingurumenak arrisku maila desberdinak izan ditzakenean erabili daitezkeen teknika desberdinak zehaztu dira. ( EI)
- e.2. Ingurumen segurua eta emozionalki egonkorak eratzeko protokoloak deskribatu dira. ( EI)
- e.3. Ingurumeneko arriskuekin erlazionatuz teknika desberdinak ezarri dira ( EI)
- e.4. Arauak, segurtasun protokoloak eta norberaren babeserako neurriak aplikatu dira. ( EI)
- e.5. Urgentzia, emergentzia eta hondamen kontzeptuak definitu dira. ( EI)
- e.6. Emergentzia sistemen antolakuntza deskribatu da. ( EI)



**EDUKIEN SEKUENTZIA**

UNITATE DIDAKTIKOAK	HELBURUAK	EDUKIAK	EBALUAKETA IRIZPIDEAK
<b>UD 0 PRESENTACIÓN DEL MÓDULO</b>  0'5 h	N/A	N/A	N/A
<b>UD 1 VALORACIÓN DE LA ASISTENCIA DE URGENCIA</b>  8 h	A, D	1, 5	a.1.; a.2.; a.6.; a.8. e.1.; e.2.; e.3.; e.4.; e.5.; e.6.
<b>UD 2 TÉCNICAS DE SOPORTE VITAL BÁSICO</b>  8 h	A, C	1, 3	a.9. c.1.; c.2.; c.3.; c.4.; c.5.; c.6.; c.7.; c.8.; c.9.
<b>UD 3 TÉCNICAS DE PRIMEROS AUXILIOS (I)</b>  7 h	A, B, C	1, 2, 3	a.3.; a.4.; a.5. b.1.; b.2.; b.3.; b.4.; b.5.
<b>UD 4 TÉCNICAS DE PRIMEROS AUXILIOS (II)</b>  6'5 h	A, B, C, D	1, 2, 3, 4	a.7. b.3.; b.4.; b.5. d.1.; d.2.; d.3.; d.4.; d.5.; d.6.; d.7.



## METODOLOGIA

### • Ikuspegi didaktikoa

Programazio honetan erabiliko den metodologia didaktikoa **konstruktibismoa** izango da, era honetan ikasleek beraiek eratuko dute norberaren ikaskuntza irakaskuntza prosezua. Horretarako ikaslearen aurretiko ezagutzak abiapuntutzat hartuko dira, baita estrategia aktiboak eta ikasleen parte hartzea ere kontutan izango dira, ondorioz ikasleak beraien ikasketen protagonistak izango dira eta irakasleak, aldiz, ikasleen kompetentziak garatzen lagundu, bultzatu eta orientatuko dituztenak izango dira parte hartzea bultzatuko dutelarik ikasleengan motibazioa eta parte hartzea erraztuz. Ikaslea era mailakatu batean, bere ikasketa prosezua kudeatzailea bilakatzea da azken helburua.

Metodologia honen oinarriak taldeko lanak eta IKT-en erabilerak izango dira, hauei esker, gizarte kompetentzia eta kompetentzia digitalen ezagutzak garatuko dira. **"Moodle"** hezkuntza plataforma erabiliko da ikasleak aurkezpen digitalak, protokoloak, ikus entzunezko materiala eta ekintza desberdinak egiteko web orrialde garrantzitsuetara joateko esteka eskuratu ahal izango ditu. Ariketa interaktiboak ebazteko eta zereginak emateko erabiltzen diren bitartekoak ere badira.

Lehentasunetako bat izango da ikasleek ikaskuntza esanguratsua eskuratzea, ikasten dutena ulertu dezaten (esanahia eman diezaioten), ikasgelan eta ikasgelatik kanpoko testuinguru desberdinetan aplikatzeko gai izan daitezen (ikaskuntza transferiblea) eta beraien ingurune sozial eta profesionalarekin erlazionatzeko gai izan daitezen. Hala ere, ezin dugu erabat baztertu memoriaren ikaskuntza, gertaerak eta gertaerak ikasteko une batzuetan beharrezkoa izaten jarraituko baitu.

Edukiak sekuentziatuko dira, partikularretik orokorrera eta errazenetik konplexuenera aurrera egin dezaten, ikaskuntza errazteko helburuarekin. Eduki teorikoek bigarren mailako funtzioa izango dute eta, oro har, unitate didaktiko bakoitzaren hasieran landuko dira. Ikasgelan ohikoena lehen laguntzako tekniken aplikazio praktikoa behar bezala kontestualizatutako egoeretan izango da, horrela "eginez ikasten" dute Roger Schank-ek defendatzen duen moduan, "Eginez ikasten" teoriaren erakusle handietako bat.

### • Teknika metodologikoak.

Goian azaldutako ikuspegi didaktikoa gauzatzeko, teknika eta estrategia metodologiko hauek erabiliko ditugu:

- **Erakusketarako metodoa:** bai irakasleak edo irakasleak, bai ikasleek egindakoa, aurkezpen digital baten proiektzioa (PPT) erabiliz.
- **Erakustaldia / Modelatzea:** irakasleak, ikasleak edo adituak egindakoa.
- **Praktika gidatua:** ikasleek irakasleak gidatutako prozedura bat erreproduzituko dute, zuzenketak, hausnarketak, ebaluazioa ... egingo dituenak.



- **Praktika autonomoa:** ikaslearen esku-hartzea autonomia lortzeko eta irakaslearen edo irakasleak ebaluatzeko behaketa.
- **Brainstorming:** iritziak emateko askatasun ingurunea sustatzeko eta eztabaidatu beharreko edukiari buruzko ideia berriak ateratzeko.
- **Eztabaida:** komunikazioa garatu, hausnartu, aurre egin eta ideiak aberastu.
- **Kasuen azterketa:** Christopher Laudellek aurkeztu zuen Harvard Unibertsitatean, 1870ean, eta M.L.Frabraren arabera talde edo azpitaldetan egoera erreal edo hipotetikoa aztertzerako eta konponbidea bilatzerako aztertzean datza. Beraz, aurkikuntza ikaskuntzan laguntzen duen metodoa da. Zentzu horretan, Winston Churchillek uste zuen "besteen esperientziatik ikasi behar dela, norberarenak asko kostatzen delako eta batzuetan berandu iristen delako".
- **"Role playing" edo rol jokoa:** J.L.Moreno-k sortutako teknika da. Lehen sorospen egoeren aurrean jendearen erreakzioekin esperimentatzeko aukera emango digu.
- **Jardueren grabazioa:** hutsegiteak aztertzeko eta lehen laguntzako tekniken errendimendua zuzentzeko, autoebaluazioa.

EBAKUAKETA TRESNAK	KALIFIKAZIOA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Eduki kontzeptualen ebaluazioa:</b> Aukera anitzeko <b>proba objektibo</b> baten bitartez egingo da (aukera anitzeko azterketa), Moodle plataformaren bidez. Proba honek 4 erantzun posible dituzten 30 galdera ditu, zigor negatiborik gabe. Ikasleak aurrez zehaztutako epean 24 ordu izango du proba egiteko, eta etenik gabeko ordu eta erdi izango du hasierako epetik aurrera. Denbora hori igarota, proba automatikoki itxiko da.</li> <li>• <b>Prozedurazko edukien ebaluazioa:</b> Saio presentzialetan zehar egingo da, zeregin praktikoak ebaluatuz eta ikasle bakoitzaren lehen errendimendu maila erregistratuz lehen sorospenetako prozedura eta teknika desberdinak gauzatzean.</li> <li>• <b>Jarrerazko edukien ebaluazioa:</b> Saio presentzialetan egingo da, jarrerazko alderdiak ebaluatuz, hala nola: puntualtasuna; parte hartzea; interesa; pertsonetikiko errespetua, materiala eta arauak; ikerketa gaitasuna; taldean lan egiteko gaitasuna....</li> </ul>	<p>Modulua gainditzeko, beharrezkoa izango da gutxienez klase orduen% 90era joatea eta 10etik <math>\geq</math> 5eko nota lortzea, hiru eduki ataletako bakoitzean: kontzeptualean, prozedurazkoan eta jarrerazkoan.</p> <p>Eduki atal bakoitzaren kalifikazioa atal horri dagozkion ebaluazio proba guztietan lortutako kalifikazioen batez bestekoa eginez lortuko da. Azken ebaluazioaren nota batez besteko ponderala eginez kalkulatu da, atal bakoitzean lortutako emaitzen ehuneko hauek aplikatuz: % <b>60</b> eduki <b>kontzeptualetan</b>, % <b>36</b> <b>prozeduretan</b> eta % <b>4</b> <b>jarreretan</b>.</p>
<b>EBAKUAKETAREN ONDORIOAK</b>	



Arestian aztertutako kualifikazio ataletako bat ez betetzeak ohiko deialdian moduluaren huts egitea dakar eta 2. azken ebaluazioan gainditu ahal izango du. Ohiko deialdiaren ez gainditzearen arrazoia bertaratzea falta bada, bertaratzea azken 2. ebaluazioaren aurretik berreskuratu beharko da ohiko baldintza berdinetan. Hutsegitearen arrazoia beste atal batzuetara mugatzen bada, ikasleek irakasleak ebaluazio negatiboan aipatu dituen alderdiak errepikatu edo aldatu beharko dituzte.

### ANIZTASUNARI ARRETA EMATEKO NEURRIAK

- Irakasleak klase-taldean eta dinamika profesionalean integratzen erraztea.
- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak pertsonalizatzen laguntzea.
- Irakaslearen ikaskuntza prozesuen jarraipena egitea zailtasunak eta behar bereziak hautemateko, hezkuntza erantzun egokiak artikulatzeko eta, hala badagokio, laguntza eta aholku egokiak jasotzeko.

### BALIABIDEAK ETA BIBLIOGRAFIA

#### ● Espazioak eta instalazioak

- Erabilera anitzeko ikasgela: hainbat altzari, mahai, arbel magnetiko, proiektore-arbel digitala eta internet konexioa duen ordenagailua ditu.
- Zentroko beste gune eta instalazio batzuk: korridoreak, hall eta eskailerak.
- Modulurako ekipamendu espezifikoa: lehen sorospenetako manikiak, desfibriladoreak, norberaren babeserako ekipoak, larrialdietarako kitak, zauriak sendatzeko materiala, immobilizazio eta mobilizazio materiala.

#### ● Saileko bibliografia

- Guyton, A.C. y Hall, J.E. Tratado de Fisiología Médica. (2001). Madrid: Mc Graw-Hill.
- Juarez, J., Álvarez, G., Garrido A., Romero A. y Vivancos M.F. (2013). Primeros Auxilios. Madrid: Aran.
- Lerma, A., Blanco, A., Gracia, G., Galdós, G., Gutierrez, I., Castelo, I., Urtusagasti, J.F., Iriarte, L. y Peláez, N. (2011). Urgencias sanitarias para bomberos. Arkaute: Academia de Policía del País Vasco.
- Pérez de la Plaza, E. y Fernández, A.M. (2017). Técnicas básicas de enfermería. Madrid: Mc Graw Hill.
- Putz, R. y Pabst, R. Sobotta. Atlas de Anatomía Humana. (2000). Madrid: Edit. Médica Panamericana.

#### ● Irakaslearen liburua

- Formatu digitalean, helbide honetan: <https://elearning18.hezkuntza.net/015667/>





**KIROLENE**  
KIROL IRAKASKUNTZEN IKASTETXE PUBLIKOA



## OHARRAK